

## 1.BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktua eraztun bat da eta bere funtzioa kaleetan segurtasuna finkatzea da. Beraz, pertsonen segurtasuna bermatzeko produktu bat da eta gizartean dauden delituak salatzeke aukera gehiago ematen ditu, gizartean gertatzen diren lapurretak, liskarrak eta indarkeria kasuak geldiarazten lagunduz.


Eraztuna bereziki emakumeentzat bideratuta dago, bizi garen gizarte honetan oraindik indarkeria gehiegi pairatzen dutelako (*ikus grafikoa*). Aurten emakumeen kontrako indarkeria oso handia izan da. Espainiako Ministerioaren datuen arabera, ikusi dezakegu uztailean zenbaki hauek pila bat igo egin direla, esate baterako 10 emakume hil egin zituzten. Datu horietaz gain, erasotutako izan diren emakumeen datuak ere kontutan hartu beharko genituzke. Erosten inguruko datu errealak jasotzea zailagoa da, neska batzuk salatzen dutelako, baina ez dutenak salatzen ez daudelako erregistratuak.

Honeta gain, beste motatako eraso edo mehatxuak jasotzen dituzten pertsonak ere erabil dezakete gure eraztuna. Izan ere, arrisku egoeran dauden pertsona guztien segurtasuna bermatzea du helburu. Beraz, pertsona guztientzat eskuragarria da eraztuna. Adibidez, politiko asko daude eskolta pribatuak dituztenak eta gure eraztunarekin gastu ekonomiko hori sahiestu ahal izango lukete. Beste adibide bat jartzearen, adin handiko pertsonak daude. Norbanako hauek lapurretei aurre egiteko gaitasun fisiko gutxiago izan ditzakete, eta beraz, kasu hauetan ere gure eraztuna interesgarria izan daiteke, laguntza eskatu eta lapurra ahalik eta azkarren harrapatzeko.

Produktuaren diseinuari dagokinez, sello motako eraztun diskretu bat da. Eraztunaren barnean, bateria, GPS eta mikrofono txiki batzuk daude. Kanpoaldean berriz, etengailu bat dago egoera mota guztietan pizteko erraza dena. Etengailuaren bidez zure kokapena bidaltzen da poliziarri eta horretaz gain, behin etengailua aktibatzean mikrofonoa pizten da eta inguruko soinu guztiak biltzen ditu.

Behin gure eraztuna merkatuan finkatzean, bezeroek beharrei erantzun bat emanez, etengabe hobetzeko asmoa dugu. Eraztunaren pertsonalizazioa errealitate bat bihurtuko da baina gure funtsezko helburua erabilgarria izatea da.

Merkatuan ez dago beste produkturik gure eraztunak egiten dituen funtzio guztiak betetzen dituenena. Merkatuan gure eraztunak egiten dituen funtzioak bezalako beste produktu batzuk egon badaude, baina ez guztiak batera. Adibidez GPS-ak eta mikrofonoak daude, zeregin hori egiten dutenak bakarrik, guk aldiz, funtzio horiek bateratzen dituen produktua sortu dugu. Gainera, gure en



presa energia berriztagarrien alde dago, esate baterako, gure makinek erabiltzen duten energia, eraikinaren teilatuan dauden eguzki plaketatik ateratzen dugu. Azkenean gure enpresa beroketa globalaren kontra dago, horregatik ekoizten ditugun soberakin guztiak birziklatuko ditugu.